

8. Euskal Herriko Unibertsitatea*

Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea 1955. urtean sortu zen (urte bereko maiatzaren 16ko Dekretua/ekainaren 1eko BOE) eta urrian hasi ziren eskolak Bilboko Elkano kalean, gaur egun Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola dagoen erai-kinean. Urte batzuk geroago, 1962-1963 ikasturtean, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Lizentziatura gaur egun Fakultateak okupatzen duen eraikin nagusira, hau da, Sarrikora, aldatu zen.

Instituzioari dagokionez, garai hartan Valladolideko Unibertsitate Barrutiaren parte zen, harik eta 1968/69 ikasturtean Bilboko Unibertsitate Autonomoa sortu eta Fakultatea honen barruan sartu zen arte. Azken pausoa duela 25 urte eman zen, 1980ko otsailaren 25ean sortutako erakunde berrian –gaur daukagun “Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)”-an– sartu zenean.

Ordutik hona, Fakultateak hazkunde-prozesu handia izan du, eta Lizentziaturaren bigarren zikloa eskaintzeko Irakaskuntza Unitate berriak ireki behar izan ditu (bat Donostian eta beste bat Gasteizen). Horrela, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza-ikasketak unibertsitate publikoan egin nahi dituzten ikasle guztien eskariari erantzuten zaio, lizentziatura osoa Bilbon egin dezaketelako, edota Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburu bakoitzean kokaturiko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskoletan Diplomatura lortuz, hiri horietan bertan lizentziatura bukatzeko aukera daukatelako.

Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatearen gaur egungo ezaugarriak hauek dira:

- Titulazioak: graduatu ondoko ikastaro eta masterren eskaintza oso zabala izateaz gain, lau lizentziatura-titulu eskaintzen dira.
 - Bi ziklotan oinarritzen diren bi titulazio:
 - Ekonomian Lizentziatura.
 - Administrazio eta Enpresa Zuzendaritzan Lizentziatura.
 - Bigarren zikloan oinarritzen diren bi titulazio (aurrekoen lehen ziklo bat egin ez gero egin daitezkeenak):
 - Aktuarial eta Finantza Zientzietan Lizentziatura.
 - Merkatuko Ikerkuntza eta Tekniketako Lizentziatura.

Matrikulatuen kopuru handiaren ondorioz, titulazioetako eskola horiek guztiak goiz eta arratsaldeko bi txandatan banatuta ematen dira.


- Irakasleak: ikastegiari atxikiak 284 dira.
- Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala: 46 langile.
- Ikasleak: 5.473 ikasle. Euskal Herriko Unibertsitateko zentrorik handiena da, ikasle-kopuru guztiaren %11,45 izanik.

AURREKARIAK

Euskararen erabileraren zabalkuntza eta normalizazioa guztion arduraren izanik, Ekono-

* Egilea: Isabel Mugartegi Egia (Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV-EHU. Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko Euskarako Dekanordea).

36. irudia. **Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea**



mia eta Enpresa Zientzien Fakultatea euskalduntze-prozesuari hasiera eman zion lehenetarikoa izan zen, eta horretarako xedapen hauetan oinarritu zen:

1. EHUko Estatutueta.
2. Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarrizko Legean.
3. Euskal Autonomi Erkidegoko Estatutuan.
4. Espainiako Konstituzioan.

Garai hartako Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutueta, urrats modura ulertu beharreko helburuak zeuden finkaturik: “Euskal Herriko Unibertsitatean Unibertsitate jarduerarentzat hizkuntz eredu elebiduna ezartzea, euskara/gaztelania, hizkuntza ofizialak izan arte” (241.2. Art.).

Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarrizko Legeak ere proposamen koherentea egin zuen, beste ikuspuntu hau hartuz: “EHUk duen kokapen geografiko-administratiboa kontuan izanik, euskara onartzea Euskal Herriko hizkuntza propio bezala” (I. eta II. Atalak, 2., 3., 4., 15., 18. eta 20. Art.).

Euskal Autonomi Erkidegoko Estatutuak, oraindik proiektzio zabalagoa ematen zuen:

“Euskal Herriko egoera soziolinguistiko ezberdinak (mailaketa) ahaztu gabe, bi hizkuntzen erabilera bermatzea” (62. Art).

Azkenik, Espainiako Konstituzioak hizkuntzaren erabilerearen helburuak nola bete ahal izatea zehazten zuen: “Elkarte Autonomoen kompetentzia bezala onartzea, kultura, ikerketa eta hezkuntzaren bultzada, bakoitzaren hizkuntzan” (148.17. Art.).

Marko hau aprobetxatuz, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak bere eginbeharrari ekin zion eta emaitzak oso azkar iritsi ziren. Horrela, Sailen, Zentroko Zuzendaritzaren eta Unibertsitateko Zuzendaritzaren ahaleginari esker, denek babestu eta garatu baitzuten ikasketak euskaraz eskaini ahal izatearen proiektu berria, 1987/88 ikasturtean euskal lerroak ofizialtasun osoa lortu zuen.

ERABILERA-PLANAREN EKIMENA ETA ARRAZOIAK

Euskal Herriko Unibertsitateak, euskararen normalizazioaren aldeko apustua egin ondoren, *Euskararen Erabilerearen Normalizaziorako I. eta II. Plangintzak* zehaztu zituen helburu orokor hau finkatuz: euskara arlo akademiko guztietara heltzea, hau da, Hezkuntza, Administrazio eta Zerbitzuak, Ikerkuntza eta Unibertsitate Luzapenetara.

I. Plangintza, bost urterako zehaztu zen eta 1990. urtean jarri zen indarrean. II. Plangintza, aldiz, ez zen lehenengoa bukatu eta jarraian abiatu, baizik eta 1999-2000 ikasturtea izan zuen lehenengoa, eta 2004-2005ean bukatuko da.

Bi plangintzetan jarraitu den prozedura antzekoa izan da, eta plan bakoitzean urrats hauek egin dira:

- Unibertsitateak aurreproiektua burutzen du, hau da, helburu estrategikoen zehaztapena, egutegia barne. Ikastetxe bakoitzak bere Ezarpen Plana prestatzen du eta horretarako Sailek, Dekanotza edo Zuzendaritzak eta Euskara Batzordeak parte hartu behar dute. Gainera, Unibertsitateko Euskara Batzordearen ahotsa entzun behar da, Plangintza guztiz egokitu baino lehen.
- Unibertsitateak adostutakoa Eusko Jaurlaritzak onartu eta finantzatu behar du, Plangintzari ekonomi baliabideak jarrita.

I. eta II. Plangintzen azken helburua, funtsean, berdina izan da: euskararentzat, gaztelaniak Unibertsitatean duen erabiler-maila eta egoera berdina lortzea.

METODOLOGIA

Unibertsitateko Ikasketa Plangintzek hainbat aldaketa izan dituzte egiturari eta aldaketa horiek eragina izan dute euskararen erabileraren garapenean.

Euskara Plangintzak aplikatzerakoan erabili beharreko metodologia Ikasketen egiturak berak finkatu zuen:

- I. Euskararen Normalizaziorako Plangintzan, euskarazko eskaintzari zegozkion helburuak planteamendu horizontalean gauzatu ziren. *Ikasturtea* eta *zikloa* izan ziren erreferentziak; hau da, mailaz maila zabaltzen zen euskara, maila bakoitzeko irakasgaiak euskaraz eskaintzen ziren. Bide hau garaian indarrean zegoen ikasketa-planari (“Plan Zaharrari”) egokitu egin zitzaion helburuak betez.
- II. Euskararen Normalizaziorako Plangintzan, goitik beherako planteamendua erabili da. Oraingoan, ikasle batek bere ikasketak bukatzeko bete behar dituen kreditu-kopuru osoa kontuan harturik,

kreditu-kopuru horren zatia edo *ehunekoa* izango da erreferentzia. Azken erreferentzia hau 1994/95 ikasturtean ezarritako ikasketa Plan Berrien kreditu bidezko egiturarekin erlazionatuta dago.

Metodologia honi buruzko azken argibide bat: oinarria beti izan da unibertsitate-eskaintza eta ez horrenbeste, ikasleen eskaria. Horrela, helburuak finkatzerakoan ikastetxe bakoitzerako irizpide nagusia ikasle-kopuru handiena zuten irakasgaiak euskalduntzea izan da, talderik handienak lortzeko asmoarekin (kontratazio-kostu txikienekin); izan ere, ezinezkoa zen ikasleek eskatzen zuten guztia eskaintzea.

OZTOPO NAGUSIAK

Edozein motatako plangintzak hainbat arazo ditu bere bideragarritasuna aztertzerakoan. Orokortasunak alde batera utzita, gure Unibertsitateko ikastetxe handienetik begiratuta, oztopo bezala euskararen garapenean EHUKo zentroen artean agertu den abiadura ezberdina aipatu behar da, bai I. Plangintza aplikatu baino lehen, bai II. Plangintza prestatzerakoan ere.

Bi plangintzetan, titulazioak beren euskalduntze-mailaren arabera sailkatu ziren, premia handien zutenei baliabide gehiago emateko helburuarekin. Horren ondorio nagusia izan da baliabide ekonomiko gehienak euskaraz eskaintako irakaskuntza urriagoa zuten zentroetara desbideratzea. Horrela, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatearen kasuan, hasierako egoera ona izanik, Plangintzaren garapena, ondoren, motelagoa izan da.

Edonola ere, gaur egungo emaitzak ikusita, lorpenek oztopoak gainditu dituztela esan dezakegu, gure Fakultatean euskarazko

eskaintza zabala egonkortu egin dela ikus daitekeelako.

EMAITZA NAGUSIAK ETA BALIO ERANTSIA

Euskalduntze-prozesuaren bi Normalizazio Plangintzen emaitzen ondorioak, hiru arlotan nabari daitezke:

Irakaskuntza

Bi lizentziatura bereizi behar dira:

Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzan Lizentziatua

Ikasleak guztira egin behar dituen kredituak 309 izanik, euskaraz eskaintzen direnak, ikasgai-moten arabera, honakoak dira:

- Enborrezko eta derrigorrezko kredituak bi zikloetan, guztiak euskaraz ematen dira: 217,5 kreditu.
- Espezialitateko kredituetan: eskaintzen diren lerro kurrikularretatik euskaraz guztira 51 kreditu eskaintzen dira (euskaraturik bi espezialitate osorik daude, nahiz eta lerro kurrikular batean ikasgai guztiak dauden euskaratuta eta bestean, lehenengo urtea soilik).
- Hautazko kredituetatik, hau da, ikasleak zerrenda luze batetik aukera ditzakeen ikasgaietatik, euskaraz eskaintzen direnak 24 kreditu dira.

Ikasle batek enborrezko kredituak, espezialitatekoak eta hautazkoak euskaraz egin nahi izatekotan, guztira: 277'5 kreditu, hau da, Lizentziaturaren %90 egin dezake.

Euskaraz ikasteko eskaintza oso altua dela ikus daiteke. Gainera, kontuan hartu behar da zenbatu gabe daudela Aukera Askeko kredituak, beraien eskaintza-mota ezberdi-

netako irakasgai eta jardueretara zabaltzen baita.

Ekonomian Lizentziatua

Ikasleak guztira egin behar dituen kredituak 320 izanik, euskaraz eskaintzen direnak, ikasgai moten arabera, honakoak dira:

- Enborrezko eta derrigorrezko kredituak bi zikloetan, guztiak euskaraz ematen dira: 274 kreditu.
- Espezialitateko kredituetan: eskaintzen diren lerro kurrikularretatik euskaraz guztira 52 kreditu eskaintzen dira (euskaraturik lerro kurrikular bakarra dago, eta gaintzeko lau espezialitateetan bi edo hiru ikasgai eskaintzen dira euskaraz)
- Hautazko kredituetatik, hau da, ikasleak zerrenda luze batetik aukera ditzakeen ikasgaietatik, euskaraz eskaintzen direnak 24 kreditu dira.

Ikasle batek enborrezko kredituak, espezialitatekoak eta hautazkoak euskaraz egin nahi izatekotan, guztira: 288 kreditu, hau da, Lizentziaturaren %90 egin dezake.

Euskaraz ikasteko eskaintza oso altua dela ikus daiteke. Gainera, kontuan hartu behar da zenbatu gabe daudela Aukera Askeko kredituak, beraien eskaintza-mota ezberdinetako irakasgai eta jardueretara zabaltzen baita.

Irakasleak

Euskalduntze-prozesuak lanpostu berriak sortu ditu Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Ekonomia eta enpresa Zientzien Fakultateko zerrenda nahiko zabala da. Fakultateko bilakaerak hurrengo emaitza hauek utzi ditu:

- Irakasle-kopurua: guztira 250 irakasle.
- Irakasle-ehelburuak: 75 irakasle (%30).

- Azken horietatik, irakasle elebidun finkoak: 44 irakasle (%58).

Maila akademikoak irabazi egin du, osotasunean Doktore eta funtzionario elebidunak erdia baino gehiago baitira.

Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak

Lehenik eta behin, aipatu behar da arlo honetako pertsonalari Euskal Autonomi Erkidegoko administrazioan ari den langilegoaren araudia aplikatzen zaiola, hau da, hizkuntz eskakizun ezberdinak lanpostuaren arabera.

Adierazitakoa kontuan hartuta, Fakultateko egungo egoera honakoa da: CIDIR arloa kenduta (Informatika), Fakultatearen plantilla 47 langilek osatzen dute eta hizkuntz eskakizuna egiaztatuta dutenen kopurua 15ekoa da, hau da, %32. Esan genezake, ondorioz, ikasleekin harreman zuzena dutenek, ia gehienak, euskaraz dakitela.

Datu hauen guztien atzean dagoen Balio Erantsia neurtzea ez da erraza. Baina argi dago, Euskal Herriko Unibertsitateak duen bezeroen zati bat, lan egiteko gizartean murgiltzen denean, euskalduna dela, trebatuta dagoela eta gai dela euskaraz lan egiteko.

Ekonomia eta enpresa Zientzien Fakultatea soilik hartzen badugu, neurtu egin dezakegu euskalduntze-prozesuak utzitako Balio Erantsia:

- Ikasleak guztira: 5.473 ikasle.
- Euskaraz ikasten dutenak: 1.024 (%19).

ETORKIZUNEN ERONKAK

Etorkizunean, 2010. urtea baino lehen Europako Goi Mailako Irakaskuntza Ereduaren sorrera datorkigunez, Ikasketak Plangintza berrien eta bere ondorioz sortuko diren aldaketen zain gaude. Hala ere, Ikasketak Plangintza berriak egiterakoan, zenbait aldagai gure alde agertzen dira:

- Alde batetik, euskaraz irakasteko irakasleak irakasle trebatuak dira.
- Bestetik, euskaraz ikasi nahi dutenen eskaria nahiko finkoa da.

Bestetik, aldaketa hauek baliabide edo tresna teknikoaren beharra dakarte dute, batez ere testugintzan, eta arazoa ez da bakarrik testu-itzulpena edo materialak sortzea euskal ikasle edo irakaslearentzat, baizik eta zer nolako politika garatu idatzitako komunikazioarekiko.

Unibertsitateak inguruko elementuekin duen harremanari begiratzen badiogu, ikusten da ikastolek ikasle-kopuru finkoa sortzen ari direla, eta horietariko gehienek ikasketak euskaraz egitea aukeratzen dutela. Bestalde, Lizentziatura lortu ondoren lan merkatuara doazenean ez dakigu zenbateraino ari diren hizkuntza hori erabiltzen, Unibertsitateak ez baititu lan-merkatuaren baldintzak kontrolatzen.

Edonola ere, lan-merkatu euskalduna zabaltzen baldin bada, Euskal Herriko Unibertsitatea, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzaren arloan nahiz beste guztietan, baldintza onenetan dago merkatu hori langile trebatu eta euskaldunekin betetzeko. ■

Euskara enpresaren kudeaketan: kasu honen jatorria

Ezagutza Klusterraren azalpena

Agerikoa da enpresen jardunean euskara erabiltzeak onura asko dakarkiola organizazioari, eta bere ekoizkinen balioa areagotzeaz gain bezeroei eskaintzen dien zerbitzua hobetzeko lagungarri dela.

Ezagutzaren Klusterrak enpresa-munduko aldaketen abangoardia izan nahi du. Unibertsitatearen, enpresaren, aholkularitza-enpresen eta erakunde publikoen arteko zubi izatea saiatu gara. Ezagutzaren Klusterrak erronka hau bere gain hartu du eta euskararen erabilpena erakundeetan sustatzeko ekimen ezberdinak burutu ditu denboran zehar. Besteak beste, 1998tik gaur egun arte kudeaketa aurreratutako enpresei buruzko 22 kasu euskaraz idatzi dira eta 2001ean kudeaketaren arloan euskarazko terminologia-glosarioa egin zen Klusterraren ekimenaz.

Ildo hau jarraituz, irekitako bidea lantzen segitzea erabaki genuen. Ezagutzaren Klusterreko bazkide sarean euskara-planetan ari ziren hainbat enpresaren esperientziak trukatu eta elkarren arteko lorpenen berri izatea hasieran eta aurrerantzean elkarlanean jarduteko asmoz, *Euskara eta Kudeaketarako Foroa* sortzeko premia hauteman zen Klusterretik, eta azkenean martxan jarri zen 2003 urtean.

Foroaren helburu nagusiak euskara kudeaketaren arloan erabiltzeak lanari ematen dion balio erantsia aztertzea eta hori jakinaraztea, kontzeptuak eta egoerak argitzea eta esperientziak trukatzeko, eta ikuspegi eta metodo berriak elkarrekin eta elkarrengandik ikastea izan dira.

Foroko partaideek 2003ko abendutik 2005eko martxora arte egin zuten lan. Guztira, 20 erakunde ezberdinetako 37 pertsonak parte hartu zuten: ELHUYAR eta EZAGUTZAREN KLUSTERRA erakunde dinamizatzaile gisa eta AZTI, BATZ, EITB, EMUN, MONDRAGON ESKOLA POLITEKNIKOA, ESTE, EUSKO JAURLARITZA, GAIKER, IDOM, IKERLAN, IMH, LABEIN, MCC, ROBOTIKER, TEKNIKER, UZEI, VISESA, eta EHU partaide gisa.

Hauetaz gain, beste erakundeak momentu zehatz batzuetan foroarekin bat lanean aritu ziren: Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila; Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza; Bizkaiko Foru Aldundia, Kultura; Gipuzkoako Foru Aldundia; EHU-ko Euskara Errektoreordetza; Ekonomisten Euskal Elkargoa; Energiaren Euskal Erakundea (EEE); ABB Niessen; AHIZE; Danobat; Elkargi; Euskarazko Komunikazio Taldea; Kondia; Maier Koop. E.; MCC; Pasaiaiko Portua eta Urola Kostako HITZA.

Hona hemen Foroan parte hartu zuten pertsonen zerrenda: Leire Arrizabalaga eta Igor Lezamiz (dinamizatzaileak), Igor Álvarez, Blanca Arosa, Gorka Aurre, Itziar Azkue, Edurne Bilbao, Rafael Enparantza, Urrate Etxaburu, Alaitz Etxeandia, Ander Etxeberria, Amaia Gabilondo, Nerea Ganboa, Ainhoa Garayar, Nikolas Gardner, Izaskun Ipiñazar, Asier Larrinaga, Agurtzane Loidi, Xabier Manterola, Jesús Matey, Ibon Muguruza, Itziar Navarro, Joxe Ramón Elortza, Ainhoa Saitua, Ibon Serrano, Joxe Mari Ulazia, Mikel Urdangarin, Karmelo Uriarte, Xavier Uriarte, Arantzazu Urtzelai, Arrate Zamakola, Joxean Zapirain, Amaia Zarrabeitia, Eneko Zarraoa, Jon Zuazabeitia, Karmele Zuazubiskar eta Miren Zubizarreta.

Pertsona horien lanaren fruitu gisa kaleratu zen 2005ean '*Euskara enpresaren kudeaketan. Gakoak eta esperientziak*' izeneko txostena. Txosten honetan aztertzen diren gaien artean egungo egoeraren diagnostikoa, euskararen balio erantsia, euskara kudeaketan txertatzeko gakoak, eragileak eta baliabideak azpimarratzekoak dira. Honez gain zortzi esperientzia praktikok osotzen dute informea: Batz S. Coop, EITB, ESTE/EUGT, IMH, Labein Fundazioa, Mondragon Goi-Eskola Politeknikoa, Tekniker eta Euskal Herriko Unibertsitatea. Agiri honetan horietako bat aurkeztu da; besteak aurkituko dituzu dokumentu honetatik ateratakoan.

Oharra: Txosten osoa eskuratzeko Ezagutzaren Klusterraren Web orrian eska daiteke. <http://clusterconocimiento.com>